

1. Gu gara zure lekuko
zu aldarrikatzean.
Gure aurka daude asko
gu lotsarazi nahian.
Ez dugu ez beldurrik,
zure babesa baitugu.
Eman denoi zure indarra,
guk erregutzen dizugu.

(ERREPIKA)

*Bai, emaguzu kemena,
beldur ez izateko.
Mezu hau emango dugu
denek argi entzuteko:
«Harmagedon dago gertu
'ta zintzoak iraungo du».
Bai, emaguzu kemena,
arren, Jauna.*

2. Gu babesgabe gaudela
zuk ederki dakizu.
Bai, lagunduko gaituzu,
hitza eman baituzu.
Ikusi mehatxuak,
kontra dugun aurkaria;
izan zaitez gure alboan
ez dadin gal zure herria.

(Errepika)